

## UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, jarraian ageri den **TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK UDAL BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA**ren inguruko **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten, Udalbatzan azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Motorizazio ez-kutsatzaileranzko aldaketa sustatzea lehentasun bat da. Araututako aparkaleku-eremuetan aparkatzeko baldintzek aldaketa hori bultza dezaketela kontuan izanik, gure ustez, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak ezarritako «Zero Isurpen» bereizgarriarekin behar bezala identifikatutako ibilgailuei baldintza bereziak aplikatzea komeni da.

Hori dela eta, honako **ARAU PROPOSAMEN** hau proposatzen **dugu TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK UDAL BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA**ren inguruan:

#### Hau proposatzen dugu:

*2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den Eranskineko zerga-kuotei honako hau gehitzea*

<i>Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako Zero Isurpen bereizgarriarekin behar bezala identifikatutako ibilgailuetarako aparkamendu bereizgarria.</i>	<b>Doakoa</b>
---	---------------

Donostian, 2022ko abuztuaren 3an

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularreko bozeramailea